

# Orain, gu!

*Herria ezagutzen*



5



**ARGITARATZAILEA:** Errenteriako Udala. Euskara Zerbitzua

**EGILEA:** Hik Hasi Euskal Heziketarako Aldizkaria (Arantxa Urbe)

**MAKETAZIOA:** Antza komunikazio grafikoa

**ILUSTRAZIOAK:** Juan Luis Landa

**ARGAZKIAK:** Errenteriako Udal Artxiboa, Fomento Cultural, Kutxa Fototeka, Koldo Mitxelena Kulturunea, Zumalakarregi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Federico Schneidhofer, Album Geográfico Descriptivo del País Vascongado 1914-1915, Luis Elberdin eta Hik Hasi.

**L.G:** SS-250-11

**Inprimatzailea:** Antza komunikazio grafikoa

OHARRA:

11. orrialdeko irudia Antonio Valverde *Ayaldek* egina da. *Errenteriako bertsolari zaarrak* liburutik hartua.

1

Zein gerra ezagutzen dituzu?

.....

.....

.....

2

Izan ote da gerrarik gure herrian? Noren artean?

.....

.....

.....

3

Hirigintza kontuan izanik, markatu egokiak iruditzen zaizkizun adierazpenak:

☐

Etxeak oso altuak dira.

☐

Kaleak zabalak dira.

☐

Gauez ongi argiztatuta dago.

☐

Lorategi ugari daude.

☐

Oinezkoentzat pentsatutako herria da.


☐

Jolasteko leku egoki nahiko daude.

4

Adierazi zure iritzia kolorez.

Zenbatek egiten dugu lan?




ASKO



GUTXI

Zenbat daude?



5

Ea zenbat lantegi topatzen dituzun argazki honetan!







GureGipuzkoa.net/errepublikarrek 21eko kanoia kargatzen/©Cc-BY-SA: Fondo Marín

- ✓ Zer da gerra?
- ✓ Nola sortzen dira?
- ✓ Nola egiten dira gerrak?
- ✓ Nola bukatzen dira gerrak?
- ✓ Non ikasi duzu gerrari buruz dakizuna?
- ✓ Zein gerra ezagutzen dituzu?

Nortzuek galtzen dituzte gerrak, zure ustez?

.....

.....

Zein hitz ditu gerrak?

ILUNA, HERIOTZA, BELDURRA, BELTZA, NEGARRA, .....

.....

### GERRAKO KONTAKIZUNA

Xenpelarrek bertso baten bidez adierazi zuen gerrari buruz zuen iritzia:

.....

.....

Ez naiz ni gerraren zale,  
baizik pakearen alde;  
zeñek nai duen galde,  
berari tira dale,  
bala bat sartu buruan,  
aspertuko da orduan!

.....

.....

.....

.....

.....

eta Zuk?

Erdi Aroaz geroztik, euskal lurraldeek erregeak onartutako eskubideak zituzten: Foruak.

Euskaldunek euskaldunen aurka armak hartu zituztenean, batez ere, Foruen alde egiteko egin zuten. Izan ere, liberalismoaren askatasun teorikoaren aurrean, Foruek abantaila praktikoak ekartzen zizkieten herritar xeheei.



### 1. KARLISTADA (1833-1839)

Udala liberala zen baina herria karlista. Herriak, hala ere, ez zuen oso sutsuki parte hartu Karlistada honetan.

Herriko liberalak: ekonomi sendoa zutenak eta heziketa maila altua.

Herriko karlistak: gehienak jende apala ziren.

Bergarako Hitzarmenarekin eman zitzaion amaiera, eta Besarkadaren bidez berretsi zuten Hitzarmena: bakearen truke Foruen errespetua eta ofizial karlisten kargu eta pentsioen balioztapena.



### 1841: Aduanak Ebrotik Bidasora ekarri zituzten.

Komunikabideen hedakuntzan trenbidea berrikuntza nagusia.

- Industrializazioak lehen pausoak eman zituen.

- Politika mailan foruzaletasuna berrindartu zen.

- Herriak handitzeko harresiak botarazi zituzten.

Euskal jendartea zatitu eta liberalismoaren aurkako mugimendua hasi zen.

Herrian gerrarako grina piztu zen eta herritarrak etsaitu ziren. Gatazka politikoak bizitzako arlo guztiak nahastu zituen.

Industria kapitalista zabaltzeak eta estatu liberala sendotzeak kostu ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ekarri zituen. Estatu liberalak kultur uniformazioa eta Euskal Herriko ezaugarriekiko etsaitasuna sustatu zituen.



### 2. KARLISTADA (1872-1876)

Herria liberelek hartu bazuten ere militarki, hauteskundeak karlistek irabazi zituzten.

Herriko liberalak: notable gehienak, lur-jabeak, lantegietako nagusiak, merkataria eta abar.

Herriko karlistak: ia nekazari guztiak, langileak, maisu-maistrak eta apaiz gehienak. Apaizek sekulako papera jokatu zuten karlisten alde.

Karlistek gauez Arramendiko sagastietatik eta Madalenako baratzetatik eraso egiten zieten herria setiatu zuten soldadu liberelei.

Liberelek sagastiak moztu eta herritarrak zigortu zituzten ondasunak bahituz. Familiak herritik kanporatu zituzten, eta baserri asko erre zituzten.

Liberelek San Marko eta Txoritokieta gotorlekuak egin zituzten eta Arramendi eta Daita baserriak gotortu zituzten.



#### FORUAK

.....

.....

.....

.....

.....

#### ADUANAK

.....

.....

.....

.....

.....

Gerrek gosetea eta gaitzak ekarri zituzten ondoren. Soldadutzara ez joateko eskubidea indargabetu zuten. Herrian, Landarbaso inguruko baserriek soilik eutsi zieten hainbat eskubideri. Horregatik esaten zitzaion Landarbasoko Errepublika Forala.











## LAN BALDINTZAK

2004: Niessen eraitsi zuten.

1994: Esmalteria eraitsi zuten.

1988: Alkoholera eraitsi zuten.

1988: Lino eraitsi zuten.

80ko hamarkada: Krisia.

1975: Paisa desagertu zen.  
1954: Herriko Industrien II. Erakusketa.

30eko hamarkada: 34 lantegi zeuden.

1929: Oinetako fabrika zabaldu zuten.

1928: 28 lantegik 53 produktu ekoiztu zituzten.

1925: Esmalteria sortu zen.

1924: Euzkaria lantegia sortu zen.

1919: 8 orduko laneguna.

1915: Langabezi handiari aurre egiteko herri-lanak.

1914: I. Mundu Gerra. Lantegi batzuk itxi zituzten.

1913: Lehen greba emakumeek bultzatua.

1912: Topoa inauguratu zuten.

1904: Lehenengo sindikatua sortu zen.

1903: Herriko Industrien I. Erakusketa.

1900: Jute zabaldu zuten.

1890: Papelera zabaldu zuten.

1889: Lanera zabaldu zuten.

1886: Olibet sortu zen.

1881: Añarbe burdinola itxi zuten.

1873: 10 urtetik beherako haurrek lan egiteko debekua.

1869: Hornidura krisia. Lihoa gogor kolpatu zuen.

1864: Trenbidea inauguratu zuten.

1855: "Salvador Echeverría y Cía" zabaldu zuten.

1853: "Real Compañía Asturiana de Minas" zabaldu zuten.

1846: Andoain-Irun errepidea zabaldu zuten.

1845: Fabrika Handia zabaldu zuten.

1845: Herria Pasaiako portuaren burualdean zegoen.

1870 arte, lanegunak 12 edo 13 ordukoak izaten ziren. 1880az geroztik, berriz, 10 edo 11 ordukoak.

Lantegi batzuetan astean 69 ordu egiten zituzten: 12 astegunetan eta 9 larunbatetan.

1919an, borroka gogorren ondoren, 8 orduko laneguna lortu zuten.

Soldatak txikiak izaten ziren, desberdinak lantegi batetik bestera. Emakumeek gizonek baino soldata askoz baxuagoa zuten, erdia baino gutxiago gehienetan, lan antzekoa egin arren.

Eta zein produktu ekoizten ote dira gaur egun gure herriko lantegietan?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Gure herriko lantegi haietan haurrak ere aritzen ziren lanean. 1903an, adibidez, 16 urtez beherako 71 mutil eta 68 neska ari ziren lanean. Langileak, guztira, 1.178 ziren. Haurrak 8 urtekin hasten ziren lanean eta helduen ordutegi bera izaten zuten.

**Kalkulatu:** 1903an gure herriko langileen %..... . 16 urte baino gutxiago zuen.

Zergatik uste duzu lan egin beharko zutela:



Ez zutelako ikasi nahi.



Etxean diru beharrean zeudelako.



Dirua nahi zutelako litxarkeriak erosteko.

Oraindik munduko hainbat tokitan haurrek lan egiten dute.


Zer dakizu horri buruz?

.....

.....

.....

.....



Gorce, Edit, Talence, France

Altzariak  
Ogia  
**Papera** **Euritakoak**  
**Zur-orea** **Gozogintza**  
Zeluloidezko  
**Lurringintza** **Altzairuzko**  
**Ate eta leihoak**  
Arropa zuria **Ferrak**  
Arrosarioak  
Soldadura autogenoa  
Itzalkinak  
Hari-ehunak **Jute-ehunak**  
**Ile-tindagaiak**  
**Tutuak**  
Latorrizko tresnak





Zenbat ordu egiten dute lan langileek? .....

Zuen gurasoen lantegietan berdin irabazten al dute gizonek eta emakumeek?

.....

Zeren arabera daude soldata desberdinak?

.....

.....

Zerk uste duzu kezkatzen dituela egungo langileak?

.....

.....

.....

Zuen etxeok ere beren lanarekin ekoiztuko dute produkturen bat edo haren ekoizpenean lagunduko dute.

Bildu informazioa eta osatu zerrenda:

.....

.....

.....

Zergatik esaten ote zioten Manchester Txikia? .....

.....

.....

Eta guri "Galleteroak"? .....

.....

.....



Seltz-ura  
Berunzuri eta minioa  
Espartinak  
Armairuak  
orraziak  
piezak  
Gurdiak  
Zurezko oinetakoak  
Zurezko oheak  
Saskiak  
Eraikuntzako materialak  
Eskalapoak  
Kometako deposituak  
Elastikoak  
Papergintzarako feltroak

**Kalamuzko irunak**  
Inprimakiak  
Etengailuak  
Apaintze-mahaietako xaboiak  
Artilezko jertseak  
Artile irunak  
Berunezko lingoteak  
Espartinentzat olana  
Marmol landua  
Material elektrikoak  
Mahaiaik  
Galdaketarako moldeak  
Hauts lurrinduak  
Galleta eta bizkotxoak

**Bastoiak**  
**Brontze eta letoia**  
**Zurezko kutxak**  
**Eskuilak**  
**Galdaketarako moldeak**  
**Hauts lurrinduak**  
**Galleta eta bizkotxoak**

1873an dekretuz debekatu zuten 10 urtetik beherakoak lanean aritzea. Mende amaiera arte, ordea, ez zen agindua bete.

Haurrek ere, emakumeen moduan, gizonen baino gutxiago irabazten zuten.

Zeri ematen diozu balio handiena?

- ☐ Diru asko irabazteari.
- ☐ Gustura lan egiteari.
- ☐ Lan ahalik eta gutxien egiteari.

Eta zein da zure iritzia?

.....

.....

.....

.....

.....

Emakume askok lan egiten zuten gure herriko lantegietan.

1903an zeuden 14 lantegietan 1.178 langilek lan egiten zuten. Horietatik 479 emakumeak ziren; hau da, % .....

60k, % ....., 16 urte baino gutxiago zituzten. 78k, % ....., 50 urte baino gehiago zituzten.

Fabrika Handian, 181, % ....., emakumeak ziren eta 65, % ....., gizonezkoak.

Laneran, 1901ean, 66, % ....., emakumeak ziren eta 55, % ..... gizonak.

Gizonezkoei baino diru gutxiago ordaintzen zietenenez, eskulan merkea ziren. Batez ere, ehungintza, galletagintza eta, neurri apalagoan, papergintzan aritzen ziren. Garrantzi handiko lana egin zuten herriko lantegietan. Lantegian lan egin arren etxeko lanak egiten jarraitu behar izan zuten. Hala, lantegian 12 orduz lan egin ondoren, etxeko martxa eramaten zuten.

Ondorioz, makaltze fisiko handia pairatu zuten eta horrek isla izan zuen heriotza tasan.

Gainera, emakumeak baztertuta eta gutxietsita zeuden lantegietan.

Egoera horretan, buru-belarri murgildu ziren langile borrokan.

Emakumeak izan ziren 1919an 8 orduko lanegunaren aldeko greba deitu zutenak. Indar publikoek esku hartu zuten gertatu ziren istiluetan.

Urtebete geroago, emakumeek bi hilabeteko greba egin zuten lan baldintza duinak eskatu eta kaleratutako emakume langile batekiko elkertasuna adierazteko.

Hurrengo urteetan, emakume langileen jarduna jaitsi egin zen. Gizonezkoen eskulana soilik behar zuten industri sektoreak handitu zirelako eta emakumeen soldata igoerek, eskasak izan arren, emakumeak kontratatzeari errentagarritasuna kendu ziolako.

**Osa ezazu taula azterketa egiteko:**

|             | Lana etxetik kanpora   |                        | Zein sektoretan? |
|-------------|------------------------|------------------------|------------------|
|             | BAI                    | EZ                     |                  |
| Gure amonek | % <input type="text"/> | % <input type="text"/> |                  |
| Gure amek   | % <input type="text"/> | % <input type="text"/> |                  |
| Eta guk?    | % <input type="text"/> | % <input type="text"/> |                  |

**ONDORIOA:** .....





# Joxepa Antoni Aranberri Petriarena

1865eko urtarrilaren 7an jaio nintzen. Gure ama, Maria Luisa, *Xenpelar*en arreba zen; osaba nuen, beraz. Horregatik, askok, Joxepa Antoni Xenpelar esaten zidaten.

Ez nuen aukera handirik izan haiek bertsoan entzuteko. Baztanga izurritean osaba gaixotu eta amak zaindu zuen, hura ere kutsatu zen arte. Hamar eguneko tartean hil ziren biak. Lau urte nituen.

Ikasteko grina handia izan nuen. Handik eta hemendik inguratzen nituen liburuak irakurtzea gogoko nuen. 12 urterekin hasi nintzen *Fabrika Handia*n ehule gisa lanean, ama eta osaba bezala. Horretan aritu nintzen itsutu nintzen arte. Liburuak uzten zizkidan lagunak takoizko zapatak utzi zizkidan, txikia nintzenez lantegitik botako ninduten beldurrez. Buruan zapia janzten nuen zaharragoa emateko.

Gure garaian emakume bertsolariak ez ginen asko. Europako Gerra, *Fabrika Handia*, Madalenako ermita, Maria Birjina eta abar izan ziren bertsoetarako gaiak. Hala ere, nire bertso famatuenak herrikide nuen Enrike Elizegirekin trukatu nituenak izan ziren. Hark, Bilboko *Ibaizabal* egunkariko bertso lehiaketa irabazi zuen neskazarharrei jarritako bertso batzuekin. Han esan zituenak biziki haserretu ninduen.

Santxoenea kalean bizitu nintzen 1943ko abenduaren 29an minbiziak hil ninduen arte. Azken 20 urteak itsu pasa nituen.

**Joxepa Antoni emakume langilea zen. Martxoaren 8an ospatzen dugu Emakume Langileen Eguna. Zergatik ote? Bildu ahalik eta informazio gehien eta ondoren aukeratu hamar lagun.**



## GERTAERAREN BERRI BAZUTENAK



## GERTAERAREN BERRI EZ ZUTENAK







LUZURIAGA



PAPELERA





PEKIN

LANERA

ESMALTERIA

PAISA

NIESSEN

JUTE

OLIBET





XX. mendeko 80ko hamarkada arte herri-gunea industrialde modukoa zen: etxeak, lantegi handiak, haiek zerbitzatzeko lantegi txikiak nahasten ziren.

Gaur egun Papelera soilik geratzen da herri-gunean. Gainerakoak, inguruko industrialdeetan pilatzen dira. Lantegiak egon ziren orubeek gorde dituzte haien izenak.

Lantegi haiek sortu zituzten familia haien oroigarri, lorategi bilakatu den Gaztelutxoko hilerri zaharreko hilobi dotoreak geratzen dira. Herriak garatzen jarraitzen du eta gaur egun zerbitzu herria da, batik bat.



Lehen

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Orain



Jendearen pilatze hura inoiz ikusi gabekoa izan zen. Bat-batean auzo berriak sortzen ziren, hiriztatu gabe, herri-gunearekin mugan zeuden landa eremuak txikituz, baserrien, baratzen eta abarren suntsipena ekarriz. Zerbitzuak erdigunean jarri zituzten: saltokiak eta kafetegiak, era guztietako elkarteak, geltokiak, telegrafo eta posta etxea, hornidura azoka eta abar.

Kutsadura asko handitu zen. Bizimodua ez zen erraza bihurtu...

| Urtea   | Kaputxinoak | Agustinak | Beraun | Olibet | Pontika | Iztieteta | Morrongileta | Beste batzuk | Guztira |
|---------|-------------|-----------|--------|--------|---------|-----------|--------------|--------------|---------|
| 1970    | 180         | 165       | 197    | 70     |         |           | 90           | 877          | 1.579   |
| 1971    | 220         | 30        | 398    | 224    | 326     |           |              | 57           | 1.255   |
| 1972    | 160         | 70        | 302    |        |         |           |              |              | 532     |
| 1973    | 104         | 140       | 395    | 70     |         |           |              | 86           | 795     |
| 1974    | 108         | 30        | 460    |        |         | 54        |              | 61           | 713     |
| 1975    | 164         |           |        |        |         |           |              | 297          | 461     |
| Guztira | 936         | 435       | 1.752  | 364    | 326     | 54        | 90           | 1.378        | 5.335   |



Zein urtetan eraiki ziren etxebizitza gehien eta zenbat? .....

Zein auzotan eraiki ziren etxebizitza gehien eta zenbat? .....

Zenbat etxebizitza ditu bizi zaren eraikinak? .....



5.335 etxebizitza eraiki ziren 6 urtetan.

Bizi zaren bezalako zenbat eraikin ote dira horiek? .....

Zein zerbitzu daude zure auzoan? .....

Falta direnetatik, zein jarriko zenukete? .....



Begiratu argazkiak. Zer uste duzu gertatu zela hirigintza arloan gure herrian? .



### NIRE ARGUDIOAK

1. ....
2. ....
3. ....
4. ....
5. ....
6. ....
7. ....





**JATORRIZKO  
HERRIALDEA****BIZTANLEAK**

|                            |     |
|----------------------------|-----|
| Alemania.....              | 31  |
| Aljeria.....               | 45  |
| Ameriketako                |     |
| Estatu Batuak .....        | 10  |
| Andorra .....              | 2   |
| Angola .....               | 2   |
| Argentina .....            | 77  |
| Armenia .....              | 4   |
| Australia .....            | 2   |
| Austria .....              | 1   |
| Belgika .....              | 4   |
| Bielorrusia.....           | 4   |
| Boli Kosta .....           | 1   |
| Bolivia .....              | 64  |
| Brasil .....               | 94  |
| Britania Handia .....      | 13  |
| Bulgaria .....             | 31  |
| Burkina Faso .....         | 2   |
| Cabo Verde .....           | 1   |
| Dominikar Errepublika..... | 34  |
| Ekvador.....               | 189 |
| Ekvatore Ginea .....       | 67  |
| El Salvador .....          | 5   |
| Errumania .....            | 168 |
| Errusia .....              | 23  |
| Eslovakia .....            | 5   |
| Filipinak .....            | 4   |
| Finlandia .....            | 1   |
| Frantzia.....              | 157 |
| Georgia.....               | 2   |
| Ghana .....                | 9   |
| Ginea .....                | 1   |
| Ginea Bissau .....         | 1   |
| Grezia .....               | 1   |
| Guatemala.....             | 1   |
| Hegoafrika.....            | 2   |
| Herbehereak .....          | 2   |
| Honduras .....             | 41  |
| India .....                | 8   |
| Irlanda .....              | 3   |
| Italia .....               | 34  |
| Kamerun .....              | 10  |
| Kazakhstan .....           | 1   |
| Kolonia .....              | 184 |
| Kongo .....                | 2   |
| Kuba .....                 | 85  |
| Libano.....                | 3   |
| Maroko .....               | 312 |
| Mauritania.....            | 4   |
| Mexiko .....               | 20  |
| Moldavia .....             | 2   |
| Mongolia .....             | 6   |
| Nepal .....                | 1   |
| Nigeria .....              | 31  |
| Nikaragua .....            | 57  |
| Pakistan .....             | 11  |
| Palestina .....            | 1   |
| Panama.....                | 1   |
| Paragui .....              | 12  |
| Peru .....                 | 61  |
| Polonia .....              | 20  |
| Portugal .....             | 295 |
| Saudi Arabia .....         | 1   |
| Senegal.....               | 9   |
| Sierra Leona .....         | 1   |
| Suedia .....               | 4   |
| Suitza .....               | 11  |
| Txekia .....               | 1   |
| Txile .....                | 17  |
| Txina.....                 | 85  |
| Ukraina .....              | 99  |
| Uruguai .....              | 6   |
| Venezuela .....            | 45  |
| Vietnam .....              | 1   |


Gure herria ere emigrante herria izan da. Industrializazio aurretik herritar askok alde egin behar izan zuen lan bila. Gerra garaian, berriz, beste askok ihes egin behar izan zuten. Langileen beharrak inguruko herrietatik erakarri zuen jendea. Gero, Nafarroatik etorri ziren asko. Ondoren, eta trena baliatuz, Espainiatik etorri ziren: Gaztela-Leondik, Galiziatik, Extremaduratik eta Andaluziatik.

Gehienak nekazariak ziren eta eskulan merke eta esplotatzeko erraza izan ziren. Haien bizitza ez zen erraza izan: etorkinek bizi-behar eta estutasun egoera-ekonomiko larriak pairatu zituzten.

**Eta zer gertatzen da gaur egun?**

Osatu estatuz kanpoko atzerritarrak zenbat ziren ehunekotan.

| Urtea | Biztanle etorkinak | Biztanleak guztira | Etorkinak %            |
|-------|--------------------|--------------------|------------------------|
| 2003  | 655                | 38.134             | % <input type="text"/> |
| 2004  | 773                | 37.872             | % <input type="text"/> |
| 2005  | 943                | 37.884             | % <input type="text"/> |
| 2006  | 1.613              | 38.416             | % <input type="text"/> |
| 2007  | 2.008              | 38.763             | % <input type="text"/> |
| 2008  | 2.288              | 38.921             | % <input type="text"/> |
| 2009  | 2.545              | 39.145             | % <input type="text"/> |



Osatu grafikoa goiko datuekin. Ea nolako marra ateratzen den.

Herritarren jatorriari buruz egin duten datu bilketaren antzekoa egin dezakezu zuk ere. Hiru belaunaldi azter ditzakezu.

|                      | HERRIAN JAIOTAKOAK |   | KANPOAN JAIOTAKOAK |   |
|----------------------|--------------------|---|--------------------|---|
| <b>Gu</b>            |                    | % |                    | % |
| <b>Gurasoak</b>      |                    | % |                    | % |
| <b>Aitona-amonak</b> |                    | % |                    | % |

Non jaiotakoak zarete zuek?

.....

.....

.....

.....

.....



Beste herrietatik etorri diren lagunek badituzte beren kultura eta ohiturak.

Gureekin batera, kolore gehiago jarri dizkiote gure herriari, eta horrek aberasten gaitu.

Jatorri bera duen jendea bildu eta elkarteak sortu dituzte. Jaiak ere egiten dituzte.

Ba al dakizu zein elkarte ditugun herrian eta nongo lagunak biltzen dituzten?

.....

.....



Imajina ezazu beste herrialde batera joan behar duzula bizitzera. Nola uste duzu sentituko zinatekeela bizileku berri horretan?

.....

.....

.....



Akaso, topatuko zenuke norbait herri berria erakutsi eta hangotarrak nolakoak diren eta zer egiten duten adieraziko lizukeena. Eta zuk, zer erakutsiko zenioke etorri berri bati?

Zein leku erakutsiko zenizkioke?

.....

.....

.....

.....



Horrelakoa da gure herria eta horrelakoak gara herritarrak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Erakutsiko  
zeniokeen  
argazkia



*Michael Faraday-k argindarra asmatu zuen 1831n.*

*Alexander Graham Bell-ek*

| ERREPIDEA         |                        |           |                          |                | ARGITERIA                    |                           |                       |                      |
|-------------------|------------------------|-----------|--------------------------|----------------|------------------------------|---------------------------|-----------------------|----------------------|
| 1846              | 1915                   | 1953      | 1976                     | 1999           | 1869                         | 1867                      | 1896                  | 1898                 |
| Andoain-Irun (N1) | Alfonso XI saihesbidea | Zamalbide | Bilbao-Behobia autopista | N1 saihesbidea | Kaleko argia olio lanparekin | Olio petrolioz ordezkatua | Kale argia elektrikoa | Argia lehen etxeetan |

Industrializazioak teknika berriak ekarri zituen. Horiek askoz lehenago aplikatu ziren herri-gunean baserrietan baino. Horien hedapena goitik-behera hasten zen: jende dirudunak lehentasuna zuen, alegia.

Pixkanaka, beraz, argia, ura, telefonoa eta abar zabalduz joan ziren herrian.

Garai hartan etxeek ez zuten ez urik ezta argirik ere. Ez zuten komunik eta arropak kalean zeuden “labadero”etan garbitzen zituzten.


Biztanleen ugaritze azkar eta izugarri hark, ordea, herriak zituen azpiegitura guztiak gainditu zituen azkar.

1930ean udalari zuzendutako idatzi batean, herriko kezka nagusienetako bat egoera higienikoa zela ikus liteke, iturri, bainu publiko eta pixatoki gehiago eskatzen baitzituzten.

## ARGITERIA

Lehenago argiztatu ziren herriko kaleak etxeak baino. 1861ean, kaleetako argiteria olioizko zortzi farolek osatzen zuten. Geroxeago, 1867an, olio petrolioagatik aldatu zuten.

Petrolioizko farolek argitu zituzten gure kaleak harik eta 1896an Papelerarekin egindako kontratu bati esker, kaleko argiteria argindarrez elikatu izan zen arte. Horretarako, egurrezko argi-poste ugari jarri zituzten kaleetan. Poste horiek, egurrezko beso zabalak zituzten eta haiei esker argi kableak airez eraman ahal izan ziren.




Nola dago argiztatua zure kalea?

.....

Nondik doaz gaur egun argindar kableak?

.....

.....



Imajinatu Arramendiko kaskotik herrira begira zaudela gauez. 1861a da, zer uste duzu ikusiko zenukeela?

.....

Eta gaur gauean begiratzerakoan? .....

Izarrak ere ez zituzten berdin ikusiko... Ba al dakizu zer den argi-kutsadura, zein ondorio dituen, gure herrian ba ote dugun... kontatu, kontatu:

.....

.....

.....

telefonoa asmatu zuen 1876an.

Garret Morganek semaforoa asmatu zuen 1914n.

| AZOKA             |                     |               | URA                   |             |                          |                   | TELEFONOA                    |                        | SEMAFOROA            |                       |
|-------------------|---------------------|---------------|-----------------------|-------------|--------------------------|-------------------|------------------------------|------------------------|----------------------|-----------------------|
| 1884              | 1960                | 2005          | 1884                  | 1887        | 1911                     | 1928              | 1887                         | 1967                   | 1968                 | 1982                  |
| Azoka Foru plazan | Azoka Topoko maldan | Azoka Niessen | Etxeetako ur banaketa | Ur ekartzea | Garbitegi publiko berria | Ur ekartze berria | Lehen telefono partikularrak | Lehen telefono kabinak | Lehenengo semaforoak | Itsuentzat semaforoak |



Hasieran herritarrak inguruko erreketako uretatik hornitzen ziren. Industrien ugaltzeak eta biztanleriaren hazkuntzak zein ondorio izan ote zituen?

URA



1884an hasi zen etxeetako ur banaketa. 1928an ur ekartze berria inauguratu zuten. Urtegiak egin behar izan zituzten herriak eta lantegiak urez hornitzeko. Ba al dakizu nondik datorren zure etxera heltzen den ura?

TELEFONOA



1887an ipini zituzten telefonoak herriko etxe batzuetan. Gaur egun etxeetan ez ezik poltsikoetan ere badauzkagu. Kontatuko al zeniguke nola izan zen telefonoaren garapen hori zuen etxean?

AZOKA

Baserriak eta baratzak gutxitu baziren eta biztanleak ugaritu, non lortzen ote zituzten elikagaiak?

Igandea izaten zen azoka-eguna, Zumardian lehenengo eta Foru plazan gero. Baserritarrak jaisten ziren barazkiak, arrautzak, esnea eta hegaztiak saltzera langileei.

1884an Foru plazan estalitako azoka berria zabaldu zuten, herritarrek han egiten zituzten beren erosketak 1960an eraitsi zuten arte. Azoka berria zabaldu zuten Topoko maldan eta 2005 arte aritu zen.

Ba al dakizu non dagoen gaur egun azoka? .....

Non erosten dituzue elikagaiak? .....

Non saltzen dituzte baserritarrek beren produktuak? .....



Zein produktu aurki ditzakegu gure azokan?





Ikusi eta ikasitako guztiarekin dagoeneko ongi kokatuta zaude herrian. Baina jakingo ote zenuke gure herria kokatzen...

Gipuzkoan? .....


Euskal Herrian? .....

Espainiako penintsulan? .....

Europan? .....

Eta munduan? .....

Hau da, hau nahasmena!



Zientzialariek munduari horizontalki eta bertikalki irudizko lerroak marraztu zizkioten, puntu bat, gure herria adibidez, errazago kokatzeko.


Lerro horizontalei paraleloak izena ipini zioten. Munduaren gerria da 0 paraleloa, Ekuatorea. Horrela esaten zaio, Ekuadorretik igarotzen delako. Mundua iparraldean eta hegoaldean banatzen du.

Lerro bertikalei meridianoak deitu zieten. Ipar polotik hego polora doaz eta 0 meridianoari Greenwich esaten zaio, Ingalaterrako herri horretatik igarotzen delako. Mundua ekialdean eta mendebaldean banatzen du.

Beraz, gure herriak lurreko gainazalean duen posizioa zehazteko koordenatuak erabiltzen dira: latitudea eta longitudea.

**LATITUDEA:** 0 paraleloa (ekuatorea) kontuan hartuta, iparraldera edo hegoaldera egongo gara. Gradutan neurtzen da eta iparrera edo hegora dagoen zehaztu behar da.

**LONGITUDEA:** 0 meridianoa (Greenwich) kontuan hartuta, mendebaldera edo ekialdera egongo gara. Gradutan neurtzen da eta mendebaldera edo ekialdera dagoen zehaztu behar da.



Hiru koordenatu dituzu hemen, bat bakarrik dagokio gure herriari, ea zein den!

20° 11'27'' H, 130° 36'8'' M

38° 45'52'' I, 140° 26'4'' E

43° 18'45'' I, 1° 53'55'' M

Beraz, gure herriko koordenatuak hauek dira:

**LATITUDEA:** .....

**LONGITUDEA:** .....


Zehaztasun handiagorekin kokatu nahi badugu, badago beste neurri bat, altuera.

Izan ere, mendiek eta abar altuera duten gisan, herriek ere altuera dute. Baina nola neurtzen da hori?

Neurri horri itsas maila esaten zaio, itsasoaren mailarekin alderatuz kalkulatzen delako eta bere unitatea msnm da (gaztelaniako “metros sobre el nivel del mar”).

Baina munduko itsaso guztiak ez daude maila berean, eta itsasoak, mareen eraginez, ez du maila iraunkorra. Horregatik, herrialde bakoitzak bere erreferentzia itsasoa hartzen du leku eta garai zehatz baterako: Espainiak eta Frantziak Mediterraneo itsasoa.

Alacant-eko udaletxeko eskaileretako hirugarren mailan dago kokatuta lehen puntua eta hori da gure herriko altuera neurtzeko erreferentzia.



Hasieran trenbidea hartu eta haren geltokiek zuten itsasoarekiko altura neurtu eta hori adierazten zuen plaka ipini zuten. Udaletxe asko ere neurtu zituzten.

Hauxe da gure udaletxeko iltzea. Iltze hori, Mediterraneo itsasoaren itsas mailatik 6,294 m-ra dago.

Orain errepidean zehar ipintzen dituzte iltzeak, baina herriko beste txoko batzuetan ere badaude. Hormetan edo lurrean egon daitezke. Ea topatzen dituzun!



Foruen plazan lurpeko aparkalekua eraiki nahi izan zuten. Berehala itsasoa agertu zen, ordea.

Zergatik uste duzu gertatu zela hori?



.....

.....

.....

.....

.....

Gure herriak 31,9 kilometro koadroko azalera du. Bertan, 2005ean, 37.873 lagun bizi ginen.

Zenbatekoa zen, hortaz, gure herriko dentsitatea?

Gogoratu dentsitateak kilometro koadroko zenbat jende bizi den adierazten duela.

Gure herriko dentsitatea 2005ean: .....





Lehen ez zenekiena eta orain badakizuna

.....

.....

.....

.....



Lagunari galdetuko zeniokeena ulertu duen jakiteko:

Gerrez .....

Industrializazioaz .....

Hirigintzaz .....

Bizi garen jende-taldeez .....

Herriko kokapenaz .....



Gehien gustatu zaizuna .....



Gutxien gustatu zaizuna .....



Gehien harritu zaituena .....



Unitateaz etxean kontatuko zenukeena?

.....

.....

.....

.....

.....









# Herria ezagutzen

1  
2  
3  
4  
5  
6

Nor ginen  
Itsas bazterrean  
Handituz  
Gure altxorra  
Orain, gu!  
Etorriko direnak

[www.ondarea-errenteria.net](http://www.ondarea-errenteria.net)



Errenteriako Udala

